

# Beasain

## [ agenda ]

Urria 08

### Udazken Kulturala



- 1** 15:00etan. Pintura eta Marrazketako ikasturtearen hasiera. Comienzo del curso de Dibujo y Pintura. Urbieta arte plastikoetako zentroan.
- 17:15ean.** Balleteko Ikasturtearen hasiera. Comienzo del curso de Ballet Urbieta arte plastikoetako zentroan.
- 18:30etan.** Hitzaldia eta eztabaida: "Emakumeak eta Islam-a, teoriaren eta errealitatearen artean". Bakerako Lankidetzat Batzara GKEaren eskutik. Charla-coloquio: "Mujeres e Islam, entre teoría y realidad". Batzar Aretoa.
- 2** 19:00etan. Zeramika eta Esmaltatu ikasturtearen hasiera. Comienzo del curso de cerámica y esmaltado. Urbieta arte plastikoetako zentroan.
- 18:30etan.** "Rosetta": Bideo-Forum Izan Elkartearen eskutik. Video-Forum a cargo de la asociación Izan. Batzar Aretoa.
- 21:00etan.** Zine-kluba: "This is England" filmaren proiektzioa. Cine Club: Proyección de la película "This is England". Usurbe Antzokian.
- 3** 09:30etan eta 11:00etan. Txontxongiloak: "Eman eta gero" Enkarni Genuaren eskutik ("Euskaraz bai" astea eta boluntario astea). Marionetas: "Eman eta gero" a cargo de Enkarni Genua (semana "Euskaraz bai" y semana del voluntariado). Usurbe Antzokian.
- 18:30etan.** Diapositiba emanaldia: Udaleko bekaren bidezko lankidetzat. Proyección de diapositivas: proyectos de Cooperación becados por el Ayuntamiento. Batzar Aretoa.
- 18:30etan.** Keskola txarangaren irteera kaleak girotuz. Salida de la txaranga Keskola animando las calles. Bideluze plaza inguruan.
- 19:00etan.** "Euskaraz bai" erakusketaren inaugurazioa dantzariekin. Erakusketa urriaren 3tik 10era. Inauguración de la exposición "Euskaraz bai" con dantzaris (semana "Euskaraz bai") Del 3 al 10 de octubre. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.
- 22:30etan.** Bertso saioa: Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Igor Elortza, Ainhoa Mujika eta Unai Iturriaga bertsolariekin. Sesión de bertsolaris a cargo de Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Igor Elortza, Ainhoa Mujika eta Unai Iturriaga. Usurbe antzokian.
- 4** 18:00etan. Pilota partiduak: munduko txapelketan aritutako neska erraketaz eta Frontis enpresakoak binaka. Partidos de pelota: chicas que han participado en el campeonato mundial, con raquetas y de la empresa Frontis en pareja. Antzizar kirolegian VII. Boluntarioaren eguna.
- 10:00etatik 14:00etara:** Haur-jolasak (puzgarriak)/ Juegos infantiles (Hinchables).
- 11:00etan:** ekitaldiaren inaugurazioa eta Beasainen eskarmentu gehiena duen erakundeari aitortpena. Inauguración de la jornada y reconocimiento a la asociación más veterana de Beasain.
- 11:00etatik 14:00etara:** Elkarteetan stand-ak ekintza eta material ezberdinez hornitua. Stands de las asociaciones provistos de diferentes actividades y materiales.
- 11:00etan.** Musika animazioa / Animación musical.
- 11:30etan:** "Gurea" abesbatzaren emanaldia/Actuación del coro "Gurea".
- 12:00etan:** Elkarteetan arteko patata-tortila lehiaketa / Concurso de tortilla de patata. Dastatzailak:
  - Gorka Salaberria/Jose Ignacio Duhau-Rubiorena Jatetxea.
  - Jose Ignacio Urkiola-Urkiola Jatetxea.
  - Iban Mate-Doralera Jatetxea.
- 5** 08:00etan. Mendi-irteera Irurara. Salida montañera a Irura.
- 10:00etan.** Igande goizeko irtenaldiak. Salida mañanera. Asmuberen egoiztatik.
- 6** Argazkigintza digitalaren ikastaroaren hasiera. Comienzo del curso de Fotografía digital. La Salle San Jose ikastetxean.
- 18:00etan.** Saskibaloio jokoa ikasleentzat. Juegos de baloncesto para los jóvenes. La Salle San Jose ikastetxean.
- 7** 9:30ean. Haurrentzako zinea: euskerazko filmaren emanaldia. Cine infantil: proyección de película en euskara. Usurbe Antzokian.
- 17:30etan.** Eskubaloio entrenamendua Altube entrenatzaile ospetsuak gidatuta. Entrenamiento de Balonmano dirigido por el famoso entrenador Altube. La Salle San Jose ikastetxean.
- 8** 19:00etan. Hitzaldia: "Euskararen behatokia". Charla: "Euskararen behatokia".

- Hizlaria/ Ponente: Paul Bilbao (Behatokiko zuzendaria). Batzar aretoa.
- 9** 21:00etan. Zine-kluba: "Viaje a Darjeeling" filmaren proiektzioa. Cine Club: proyección de la película "Viaje a Darjeeling". Usurbe Antzokian.
- 10** 22:15etan. Ken Zazpiren kontzertua ("Euskaraz bai" astea). Concierto a cargo de Ken Zazpi (semana "Euskaraz bai"). Usurbe antzokian.
- 11** 17:00etan. Ume-jolasak. Juegos infantiles. Gernika pasealekuan.
- 19:00etan.** Triki-errenda euskal kantauk kantatuz. Ronda con Trikiarilaris.
- 18:00etan.** Ibilbidea/ Recorrido: Kale Nagusia, J. M. Iturriotz kalea, Bideluze plaza, Zaldizurreta kalea eta Joan Iturralde kalea eta plaza.
- 12** 08:00etan. Mendi-irteera Txutituriertara Beasainmendira. Salida montañera a Txutiturieta Beasainmendi.
- 10:00etan.** Igande goizeko irtenaldiak. Salida mañanera. Asmuberen egoiztatik.
- 14:00etan.** Herri Bazkaria. Comida popular. Loinazko San Martin plaza azpian.
- 17:00etan.** Herri-kirolak. Deporte rural. Bideluze plaza.
- 17:00etan.** Euskal dantzen erakustaldia. Danzas vascas. Bideluze plaza.
- 14** 19:00etan. Hitzaldia: "Transgenikoak eta nekazaritza ekologikoa". Charla: "Transgenikoak eta nekazaritza ekologikoa". Batzar Aretoa.
- 15** 18:30etan. Hitzaldia: "Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan". Charla: "Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan". Hizlaria/ Conferenciante: Iñaki Eizmendi. Batzar Aretoa.
- 16** 21:00etan. Zine-kluba: "La escafandra y la mariposa" filmaren proiektzioa. Cine Club: Proyección de las películas "La escafandra y la mariposa". Usurbe Antzokian.
- 17** 20:30etan. Musika Klasikoa / Música Clásica: "Erritmo Harrikatua". Et Incarnatus Orkestraren eskutik. Usurbe Antzokian.
- 18** 11:00etan. Antzinako motorren 3. erakusketa Beasainen. Comienzo de la 3. Muestra motor-época de Beasain. Bernedon.
- 17:00etan.** Haur Antzerkia / Teatro infantil. Usurbe antzokian.
- 19** 08:00etan. Mendi-irteera Nafarroa Oinezara. Salida montañera a Nafarroa Oinez. Bideluze plaza.
- 10:00etan.** Igande goizeko irtenaldiak. Salida mañanera. Asmuberen egoiztatik.
- 09:00etan.** XVII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa. Mihiseak zigitatzeko epea irekiko da. XVII Concurso de Pintura al Aire Libre. Comienzo del plazo de sellado de lienzos. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.
- 09:00etan.** Beasaingo XVII. Argazki-rallya. Izena emateko epe-irerkitzea eta material-banaketa. XVII Rally fotográfico de Beasain. Plazo de inscripción y entrega de material. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.
- 10:00etan.** Extremadurako azokaren hasiera. Comienzo de la Feria de Extremadura. Loinazko San Martin plaza.
- 10:00etan.** Extremadurako eskulan eta artisautea erakusketaren hasiera. Comienzo de la exposición de manualidades y artesanía de Extremadura. Loinazko San Martin plaza.
- 11:00etan.** Antzinako motorren 3. erakusketa Beasainen. 3. Muestra Motor-época de Beasain. Bernedon.
- 12:00etan.** Extremadurako musika eta dantza emanaldia. Actuación de música y danzas extremeñas. Loinazko San Martin plaza.
- 13:30etan.** XVII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa. Lanen aurkezpena. XVII Concurso de Pintura al Aire Libre. Presentación de las obras. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.
- 14:00etan.** Beasaingo XVII. Argazki-rallya: Izena emateko eta lanak aurkezteko epe berria. XVII Rally fotográfico de Beasain: nuevo plazo de inscripción y de

- presentación de los trabajos. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.
- 18:00etan.** Beasaingo XVII. Argazki-rallya. Lanen aurkezpena. XVII Rally de Beasain: presentación de los trabajos. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.
- 18:00etan.** "Extremadurako musika eta dantza emanaldia. Actuación de música y danzas extremeñas". Loinazko San Martin plaza.
- 18:30etan.** XVII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa: Sari banaketa.
- XVI Concurso de Pintura al Aire Libre: Entrega de premios. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.
- 19:00etan.** XVII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketaren inaugurazioa. Erakusketa zabalik egongo da azaroaren 9ra bitartean. Inauguración de la Exposición de los trabajos presentados en el XVII Concurso de Pintura al Aire Libre, que permanecerá del 19 de octubre al 9 de noviembre.
- Ordutegia: Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara. Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Horario: Laborables de 19 a 21 h. Festivos de 12 a 14 y de 19 a 21 h. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.
- 21** 9:30ean. Haurrentzako zinea: euskerazko filmaren emanaldia. Cine infantil: proyección de película en euskara. Usurbe Antzokian.
- 18:30ean.** Topaketak: "Bizi istorioen kontaketa (Goierri kolore egitaraua). Encuentro: Puestas en común de vivencias" (Programa Goierri kolore). Batzar Aretoa.
- 22** 19:00etan. Igartza Beka: 11. sari banaketa. Entrega de premio de la 11ª edición de Igartza Beka Igartzako Burdinolan.
- 19:00etan.** Hitzaldia: "El camino de la salud a través de la alimentación". Charla: "El camino de la salud a través de la alimentación". Hizlaria/Ponente: Maitane Velazquez. Batzar Aretoa.
- 23** 21:00etan. Filmaren proiektzioa (Goierri Kolore). Proyección de la película (Goierri Kolore). Usurbe antzokian.
- 24** 20:15ean. Antzerki amateurrak: "Ninette y un señor de Murcia" Afariescena taldeak eskainiko du. Teatro amateur: Representación de "Ninette y un señor de Murcia" a cargo del grupo Afariescena. Usurbe Antzokian.
- 25** 17:00etan. Haur antzerkia / Teatro infantil. Usurbe Antzokian.
- "Txistularien eguna".
- 19:00etan.** Goierriko Txistularien kalejira. Pasacalle por los Txistularis del Goierri.
- 19:30etan.** Txistu-kontzertua Goierriko Txistulariekin. Concierto de txistu a cargo de los Txistularis del Goierri. Loinazko San Martin plaza.
- 26** 10:00etan. Igande goizeko irtenaldiak. Salida mañanera. Asmuberen egoiztatik.
- 12:00etan.** Pintura tailerra. Taller de pintura. Joan Iturralde plaza.
- 28** 09:00etan. XX. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa. XX Concurso de manzana reineta y frutas y verduras. Loinazko San Martin plaza.
- 19:00etan.** Asmubere abesbatzaren eta Rosario Mujika eta Pilar Mataren emanaldia. Actuación del Coro de Asmube con la participación de Rosario Mujika y Pilar Mata. Batzar Aretoa.
- 29** 17:30etan. Bertso txontxongiloak: "Hitzen lapurra" ikuskizuna. Bertso txontxongiloak: espectáculo "Hitzen lapurra". Udal Bibliotekan.
- 30** 19:00etan. Hitzaldia: "Emakumearen parte hartzea eta ahal-duntzea gizartearen". Conferencia: "Participación y empoderamiento de las mujeres en el ámbito social". Hizlaria/ Ponente: Pro Mujer Eraldatzen, Centro Interdisciplinario de la Mujer. Udal Batzar Aretoa.
- 31** 20:00etan. "Voces8" abesbatzaren kontzertua. Concierto del coro "Voces8". Andre Mari Zeruratuen Parrokian.
- 20:15ean.** Seiren taldearen emanaldia. Concierto a cargo de Seiren. Usurbe Antzokian.

# Beasain

## egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2008ko urria 01



Beasaingo udala



Paper birzikletatzen egina 3249-008

## ESKOLARA BUELTAN

**5** KULTURA  
Udazken kulturala:  
Ken Zazpi, Beasainen

**6** HIRIGINTZA  
Biribilgune berriaren lanak  
urri amaieran hasiko dira

**10** KIROLAK  
BKLLk nesken senior taldea  
osatu du saskibaloian

**Beasain**  
egunez egun



Beasain sasoi batean...

Urteen poderioz, gure herriaren argazkia aldatzen ari da. Baina etorkizunari tinko heltzeko, iraganari begirada bat botatzea ezinbestekoa delako, irudi zaharrak ekarriko ditugu gogora. Badirudi denborari ihes egin diogula.



San Martin estatua agertzen da irudian, Beasaingo haurren jauntxurte egunean. Errepikatuko ez den argazkia, dudarik gabe. Nortzuk agertzen diren irudian? Asmakizuna da.

**1958**

Anbu baserriko Luis Irazustabarrena eta Dolarea baserriko etxeandrea agertzen dira irudian. Atzean, Igartza jauregia. Argazkiak 50 bat urte izango ditu gutxi gora-behera.



Nortzuk dira? Norbaitek ezagutzen badu argazkietan agertzen den jendea, jar dadilla harremanetan Udaleko Kultura Sailarekin. Erantzuna, hurrengo alean.

Alkatearen txokoa...



Patxi Plazaola

Esquetan duzun aldizkari berri honek zubi berri bat izan nahi du herritarren eta Udalaren artean. Bi helburu zehatz ditu: Batetik, Udalak egiten eta bultzatzen ari denaren berri herritarrei ematea. Orain arte, komunikazio hau puntualki eta era formalean ematen zen eta hemendik aurrera hilerokoa izango da, *Laister berrik* jorratzen zuen eremua zabalduz. Egunerokotasunari begira Beasain.net web orria dugu: 2007an 161.282 bisitari jaso ditu. Eta bestetik, herria, elkarteak, herritarrek ezagutzera ematea. Beasain herri

bizia da. Urtean zehar hainbat elkarte eta talde jarduten dira lanean: Ongizate, kultura, kirola eta beste arloetan. Nortzuk diren eta zer eskaintzen duten plazaratu nahi du *Beasain Egunez Egun* aldizkari berriak. Beraz, aldizkariaren bihotza herritarren partaidetza nahi dugu izatea. Lehen ale honek, aparki bada, hasera ematen dio hilerokozure esquetan izango duzun aldizkariari.

**Beasain**  
egunez egun

La revista nace con dos objetivos:

Dar a conocer los proyectos, realizaciones y decisiones municipales de interés para los ciudadanos y por otra parte, mostrar el dinamismo del tejido social del municipio.

Zer iruditzen zaizu  
**"Beasain egunez egun"**  
aldizkariaren kaleratzea?



**Pedro M. Intxausti**  
Kirolaria

"Creo que la publicación de una revista es una iniciativa positiva. Estaremos al día de lo que pasa en el Ayuntamiento o en el municipio y me gustaría que notificaran tanto el lado positivo como el negativo. Sería una buena noticia que en los diferentes proyectos se pusieran más de acuerdo por el bien del pueblo". ■



**Gema Larrañaga**  
Epailea

"Informatzea den guztia zozgarri iruditzen zait. Uste dut irekita egon behar duela Beasaini eta bertako auzoei, eta herritarrek izan dezatela parte hartzeko aukera. Ea nola ateratzen den. Ekimen gisa oso ondo dago, baina emaitzak ikusi behar dira". ■



**Unai Santamaria**  
CANko zuzendaria

Sobre el hecho de que el Ayuntamiento edite una revista, qué puedo decir, por supuesto que en principio valoro positivamente la iniciativa pero habrá que ver si una vez en marcha, la publicación cumple las expectativas que se le pueden exigir; tales como captar el interés de los beasaindarras, mantenernos informados, dar cabida a las diferentes opiniones y a la propia participación de los ciudadanos. ■



**Mikel Alvarez**  
Goierri Irratiko esataria

Udalan gertatzen dena herritarrei jakinarazteko edozein saiakera egokia iruditzen zait. Hala ere, helburua horixe izatea espero dut, herritarrei behar eta jakin nahi dutena azaltzeko komunikabide bat izatea eta ez Udalaren bozgorailu soil bat. Ea! ■

Beasaindar guztien esku dago

**OHARRA**

Editorea:  
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:  
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi diren herritarrek Egunez Egun aldizkaria hilerokozure esquetan jaso nahi badute edo, Beasainen bizi arren, norbaiti ez bazaita iristen, jar dadila harremanetan Udalarekin:

943 02 80 50

@ udala@beasain.net

www.beasain.net

[ Beasain ]  
egunez egun

## “Ez gara poetak baina gure erara esaten ditugu gauzak, sentitzen ditugun erara”

La programación del Otoño Cultural viene cargada de actividades. Entre los invitados, está el grupo gernikarra KEN ZAZPI que tocará el próximo 10 de octubre en el Teatro Usurbe. Hemos estado con ellos.

### Nola joan zaizue uda?

Hemendik ibili gara. Abenduan hasi ginen kontzertuen mugida honekin, areto esanguratsuenetan jo genuen eta oso ondo joan zen. Udan, berriz, kanpoko kontzertuekin egon gara. Ezberdinak dira biak baina asko gozatu dugu. Oroimenean geratzen diren kontzertu horietakoak izan dira. Donostiako edo Bilboko Aste Nagusietan emandakoak ere bereziak izan dira. Baina ez hiri handiak direlako edo jende asko bildu delako, guztietan egon gara oso gustura. Taldean giro ona dugu eta hori ere igarri egiten da. Eta jendearen erantzuna, babesa... ba ez dakit nola bueltatu dezakegun. Gure benetako argia gure publikoa da.

### “Argiak” diskaren arrakastak ustekabeen harrapatu al zaituzte edota aurreikusten zenuten, “zuen lanik hoberena” delako?

Ez dakit hau onena den. Disko bat egin dugunean, hura izan da momentuan egindako hoberena. Egin duguna egin, gure ibilbidean beti suposatu du pauso bat. Esperientzia hartzen goaz eta gure muga eta birtute guztiekin gero eta hobeto egi-

ten saitzen gara. Disko honetan egindako ibilbidea islatzen da eta erronka oso handia zen. Disketea aldatu –Elkarrekin egin dugu– Ameriketara mezklatu... saitu gara urratsak ematen.

### Nola iritsi da Gernikako talde bat Los Angelesen grabatzera, Rolling Stonesek edota Jimi Hendrixek grabatzen duten estudioetara, alegia? Badira talde gehiago jauzi hori eman dutenak?

Egon da jendea. Euskal Herrian badago oso musika ona egiten duen jendea eta tamalez agian guk izan dugun adinako oihartzunik izan ez duena. Zortea behar da. Gauza guztiek azalpen bat dute. Rafa Sardinak 18 urte daramatza Los Angelesen. 11 grammy irabazi ditu. Bermeotarra da eta lagun amankomunak ditugu. Ez genuen uste berarekin lan egingo genuenik, beste erritmo eta bizitza bat daramalako. Baina animatu egin zen.

### Ondo moldatu al zarete Rafa Sardinarekin?

Gu oso jeloskor jartzen gara gure abestiek gure erara egitea gustatzen zaigulako, gure izaerarekin. Hasieratik garbi utzi genuen berak esperientzia jarriko zuela eta mantenduko zuela gure izaera eta gauzak egiteko era. Profesionalki eta pertsonalki oreka bat egon da. Donostiara etorri zen grabatzera eta gero Los Angelesera joan ginen.

### Nola sentitu zarete Kaliforniako estudioetan?

Oso txiki sentitzen zara. Euskal Herritik joan eta txiki sentitzen zara baina aldi berean, oso harro. Azkenean esaten duzu, gu garenare-

kin, gure izaerarekin, gure hizkuntzarekin, gure sentimenduekin, etorri gara eta hemen gaude, harro eta gogotsu pauso berriak emateko.

### Musikari erreparatuz gero, hemen grabatu bazenuten oso ezberdina izango al zen diska?

Han asko ikasi dugu eta konturatu gara asko dugula ikasteko. Rafak bere ukitua eman dio. Tipoa oso ona da. Orain, Euskal Herrian ez dira gauzak okerrago egiten. Guztiaren gainera, guretzat kantuak dira garrantzitsuak, gure “argiak”. Esperientzia ahaztezina izan da, baina, musikaz gain, letrak mimatzen saiatzen gara. Ez gara poetak, ez idazleak, baina ikuspuntu pertsonal batetik egiten ditugu abestiak, gure erara esaten ditugu gauzak, sentitzen ditugun erara.

### Oraingoan, oker ez banago Sarrionandia izan duzue bidelagun.

Irakurtzea gustatzen zaigu eta Sarrionandiak hunkitu egiten gaitu. Esan bezala gu ez gara poetak. Sarrionandiak azaltzen dituz gaurak guk nahiko genukeen bezala. Plazer hutsa izan da bere letrei musika jartzea. Guretzat harribitxiak dira kantu horiek. Oso barrura sartzen dira eta hala sentitzen ditugu.

### Momentu onean zaudete. Asmatzen duzue une hauetaz gozaten edo gehiago kezkatzen zaituzte amai daitekeela pentsatzeak?

Guk musika horrela bizi dugu. Gure helburua ez da arrakasta bere horretan. Kantuak egiten ditugu, ibilbide bat dugu eta publikoarekin komunikatu nahi dugu. Musika munduak gora-beherak ditu eta orain momentu gozoa bizi dugu. Ate eta aukera asko zabaldu zaizkigu eta badirudi rockstar irudia saltzen dela. Baina egindako lanaren emaitza da. Talde langilea gara eta lanean sartzen garenean, buru-belarri sartzen gara. Jakin behar dugu momentu honetaz aprobetxatzen eta gozaten. Gure lehentasuna ez da goian eta puntan egotea, era horretan ulertuta behintzat.

### Itxaropenari abesten diozue. Zein da zuen itxaropena?

Itxaropenak kolore asko ditu. Tonu batzuk grisagoak dira, besteak argiagoak. Itxaropena ez da estatikoa, hori egon behar duen zerbait. Borrokatu beharrekoa da. Ezer egin gabe hor dagoen itxaropen horri ez diogu abesten. Egunez egun irabazten den horri baina. Egunaren arabera, itxaropena argitu edo ilundu egiten da. Kantuak ere ikuspuntu ezberdinetan oinarritzen saiatzen gara. Desioak, energia...

### Irratian zuen abestiren bat entzuten duzuenean, zer pentsatzen duzue?

Gure kantuak bere egiten ditu jendeak eta bakoitzak bere erara ulertzen ditu. Ez ditugu kantuak egiten irratian entzuteko. Komunikazioa da garrantzitsua. Formato guztietan. Eta oso eskertuta gaude kontzertu guztietan esaten dudana bezala jendea delako argia ematen diguna.

### Beasainen, zer espero dezakegu?

Uste dut ez dugula sekula Beasainen jo eta oso gustura joango gara. Momentu onean gaude eta zuzenekoetan inbertitu egiten dugu. Soinu eta argi aldetik mimatzen saiatzen gara. Aritz Arregi da soinu arduraduna eta Jabi Ulla argiena. Saiatzen gara diskoarekin emandako pauso horiek zuzenekoetan ere ematea eta zainitzea. Ez gara bakarrik oholtzara igotzen garenek. Talde bat osatzen dugu eta Aritzek, Jabik eta gainontzekoek jartzen duten mimoa eta arretari esker ateratzen da dena. Beraiei esker.

[ Beasain ]  
egunez egun

## Igartzako Dantzarien II. Eguna

Eibarko “Arrateko Kofradiako” dantzariak bidelagun, Igartzako Dantzarien II. Eguna ospatu da irailaren 14an. Duela 200 urte erabiltzen zituztenen itxurako jantziak soinean eta Zaldibian eta Ordizian Pujanatarren sasoian erabiltzen ziren ezpatak hartuta egin zuten Igartzarainoko ibilbidea, ezpata-dantza erakustaldi aparta eskainiz.

A los Dantzaris de la Cofradía de Igartza les debemos la recuperación y la puesta en escena de una vieja tradición. Este año, han participado 80 dantzaris, 30 de ellos, de la Cofradía de Arrate de Eibar. Según el dantzari Mikel Sarriegi, “hace 200 años, en Zaldibia, Idiazabal y alrededores, cada uno tenía en casa su espada y en días señalados, como en el día del Corpus, el Ayuntamiento hacía un llamamiento y los ciudadanos comparecían con sus espadas para presentar un protocolo. Pero esa costumbre se ha ido perdiendo. Se mantiene en Zumarraga, en torno a las fiestas de Santa Isabel, en Legazpia, en Markina... pero en muchos sitios se ha perdido”.

El año pasado, con el fin de dotar de un valor añadido al conjunto monumental de Igartza, celebraron por vez primera el Día de los Dantzaris de Igartza. Había una segunda razón: invitar a los ex dantzaris a participar y a disfrutar de un bonito día. Dicho y hecho. Pero, como dice Sarriegi, “no es un invento nuestro”. En 1828, Fernando VII. pasó por Gipuzkoa y está documentado cómo se le dio la bienvenida. Se dice que participaron 30 dantzaris y que vinieron expresamente de Zaldibia, por su prestigio, los tres que iban a actuar con las espadas cortas”. En el mismo escrito se detalla claramente el tipo de vestimenta que llevaban y gracias a ello, pudieron diseñar el año pasado la ropa para los dantzaris.



[ Beasain ]  
egunez egun

# Biribilgune berriaren lanak urri amaierarako hasia aurreikusten da

**Con la nueva rotonda, la antigua ubicación del ambulatorio y los alrededores sufrirán importantes cambios.**

Otsailean eraitsi zuten Beasaingo anbulategi zaharra, biribilgune baten bidez, zonalde hartako trafikoa arindu, ahal den neurrian herritarren segurtasuna bermatu eta herriko sarrera-irteerak errazteko asmoz. Orduetik, aparkaleku gisa erabili da gune hura. Aurki hasiko dira, ordea, azpiegitura berria eraikitzen. Aurreikuspenen arabera, eta dena ondo badao, hil amaierarako martxan izango dira lanak. Horrek, ezinbestean, eragozpenak ekarriko dizkie erabiltzaileei, nahiz eta Udalak bere esku dagoena egingo duen zailtasunak murrizteko. Lehen fasean Donostiatik Beasainera edo Lazkaoa heltzeko Zumadin itzulbidea hartu beharko da. Errepidearen egokitze lanak burutu dira dagoeneko. Aipatzekoa da, bestalde, gune horretan kamioien aparkaleku bat eraikiko dela. Guztira 25 ibilgailu sartu ahaliko dira. Udal izapideak gainditu ostean, aurki argitaratuko da buletinean proiektua. Horrez gain, Beasaindik Gasteizera joateko, Ertzaintza pareko bidegurutzeari Donostiako norabidea hartu eta Ordiziako industrialdearen sarreran norabidez aldatu beharko da. Lehen faseak hiru aste iraungo du. Handik aurrera emango diren aldaketan berri zuzena helarazten joango da Udala.



**SABÍAS QUE...**  
En hora punta pasan por la Kale Nagusia 228 vehículos por hora frente a 536 peatones?  
Beasain tiene un parque automovilístico de 7.050 vehículos.

**Abantailak**  
Biribilguneak ekarriko duen abantaila bat da trafikoa erraztea. Donostiatik Beasaingo herrigunera sartzeko, adibidez, gaur egun Zaldizurreta, Esteban Lasa eta San Inazio kaleak igaro behar dira. Buelta guzti hori egin beharrik ez da izango biribilguneari esker. Juan Iturralde kalearen azken zatia eta Zaldizurretak bi norabide izango dituzte. Herriko sarrera irteerak erraztea da helburua, Zaldizurreta eta Senpere lotzen dituen elkargunea oso



arriskutsua baita. Guztira, lanen iraupen epea bost hilabetekoa da eta aurrekontua, 1.365.279 eurokoa. Udalak lurrak utzi dizkio eta lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu.

**LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS NO AFECTARÁ AL FUNCIONAMIENTO DEL APARCAMIENTO DE BERNEDO**

Los trabajos que implica la construcción de la nueva infraestructura viaria no afectarán al aparcamiento de Bernedo en ningún momento. Los beasaindarras podrán hacer uso del mismo como lo vienen haciendo hasta ahora. ■



## CAMBIOS EN EL TRÁFICO durante la primera fase de las obras



En la calle Zaldizurreta, así como en un tramo de Juan Iturralde, estará operativo un único carril, por lo que hay que optar por las siguientes alternativas:

**Donostia-Beasain, Lazkao o Ataun:**  
Cambio de sentido en la N-1, en Zumadi.



**Beasain o Lazkao-Gasteiz**  
Salida hacia Donostia desde el cruce de la Ertzaintza y cambio de sentido en el acceso a Industrialdea de Ordizia.

[ Beasain ]  
egunez egun

# Irisgarritasunaren alde lanean

El Ayuntamiento ha instalado ascensores para acceder al Hogar del Jubilado, así como en el interior de la Casa Consistorial. Este mismo año se colocará un tercero que comunicará entre sí la calle Oriamendi y el barrio de Nekolalde. El presupuesto total asciende a más de 490.000 euros. Además, y por garantizar la seguridad del peatón, se ha utilizado un producto específico en las aceras para evitar los resbalones.



Udalak bi igogailu ipini ditu aurtan. Bata, Jubilatuen Etxera edo Andramendi ikastolara igotzeko. Helburu horiekin jarri bada ere, edonork erabil dezake zerbitzua, igogailua publikoa baita. Ekainetik martxan dago. Bestea, beriz, Udaltxean jarri dute. Hirugarren bat ere aurtan jartzea aurreikusten da. Azken horrek Oriamendi kalea eta Nekolalde auzoak lotuko ditu. Guztira, 490.124 euroko inbertsioa egin da. Baina irisgarritasunaren alde egindako

ahalegina ez da igogailuetara mugatzen. Izan ere, hainbat espaloitan produktu jakin bat eman da lurra ez dadin labaina egon. Ondorengo kaleetan erabili da tratamendua, besteak beste: Garmendia Otaola, Oriamendi, Kale Nagusia, Jose Miguel Iturrioz, Iturralde, Bideluze Plaza, San Inazio eta Nafarroa etorbidea (Barrendaingo parkeetik Mendeurren etorbidera). Guztira, 5.200 m<sup>2</sup> batzen dituzte eta 53.000 euroko aurrekontua bideratu da lan horiek burutzeko.



Ascensores que se han instalado para acceder al Hogar del Jubilado y en el interior del Ayuntamiento.

## Zer irizten diozu igogailua ipintzeari?



**Atilano Soto**  
Conserje del Hogar del Jubilado

“Estamos contentos. Es un servicio para la gente con dificultades de movilidad. Y no sólo sirve para la gente que viene al Hogar. Las madres con sillita de niños también hacen uso de él, ya que al lado está la ikastola. Viene bien para todos”.



Usuaris del ascensor, en la peluquería del Hogar del Jubilado

“La gente está contenta, pero claro, hay que subir la cuesta de la calle Erauskin. Ya que han puesto un ascensor, podían haberlo instalado más abajo”.



**Sara Mujika**  
Andra Mari Ikastolaren haurtzaindegiko hezitzailea

“Gurasoentzat abantaila da, zeren bestela, eskailerak dituzte. Lehen batzuk buelta handia eman behar izaten zuten, Zahar Egoitzako langa irekitzen zuten. Alde horretatik, pozik”.

## Espaloiak berritzen

- (1) Muruamendi ikastetxe parekoa.
- (2) Mendeurren etorbidea.



[ Beasain ]  
egunez egun

# 77 Haur hasi dira Seaska Haurreskolan

Irailaren bigarren hamabostaldian eman dute izena azarotik aurrera hasi nahi duten haurrek.

Modulu aurrefabrikatu berri bat estreinatu dute, oso egoera kaskarrean baitzegoen aurrekoa.

Gurasoak lanera hastearekin batera bete dira Seaska Haurreskolako gelak. 0-2 urte bitarteko 77 haurrek jasotzen dute zerbitzua oraingoz. Matrikulazio epeak urtean bitan zabalitzen dira eta azarotik aurrera hasi nahi duten haurren gurasoek irailaren bigarren hamabostaldian eman behar izan dute izena. Edo-nola ere, jaiotza tasa osasuntsu dabil Beasainen, eta horrek zerbitzuen beharra dakar. Azken urteetan, haurreskola bete samartuta izaten da. Izan ere, emakumearen laneratzeak familia eredu errotik aldatu du eta, gaur egun, aiton-amonen laguntza sarritan ez da nahikoa izaten. Behar horri erantzun nahian, Udalak beste ahalegin bat egin du Seaska haurreskolaren baldintzak hobetu nahian.

Modulu aurrefabrikatu berri bat estreinatu berri dute haurreskolakoek, aurrekoa oso egoera txarrean baitzegoen. Horrek ez du espazioa handitzea ahalbidetu baina bai erosotasunean irabaztea.

30 urteko ibilbidea du Seaska Haurreskolak. 2006ko irailaren Haurreskolen Partzuegoan sartu ziren, pribatu izatetik izaera publiko hartuz pasatuz. Urte hauetan guztietan etengabe aritu dira zerbitzua hobetzeko ahaleginetan eta modulua berritzearena beste urrats bat izan da. Udala eta Hezkuntza saila harremanetan dabilta, herriko hezkuntza eskaintzaren kalitatea ahalik eta onena izatea bermatzeko.

## Motxilak betetzeko ordua Urtea irailean hasten da

Askorentzat urteari hasiera ikasturte berriarekin ematen zaio. Oporren ostean, indarberrituta, gogobiziz heldu diete askok.



Seaska Haurreskola ha estrenado un nuevo módulo prefabricado que aunque no posibilita incrementar el número de unidades, sí permite funcionar con mayor comodidad. En cualquier caso, se trata de una alternativa provisional ante la necesidad de definir el mapa escolar. El Ayuntamiento de Beasain y el departamento de Educación están trabajando en ello, para seguir garantizando una oferta educativa de calidad.

### JAIOTZE TASAREN BILAKAERA BEASAINEN

URTEA	JAIOTZAK	URTEA	JAIOTZAK
1999	..... 103	2004	..... 129
2000	..... 117	2005	..... 129
2001	..... 121	2006	..... 163
2002	..... 110	2007	..... 173
2003	..... 130	2008	..... ---

Eta udan...

## 719 haurrek gozatu dute udalekuek

Bi eta hamalau urte bitarteko haurren ia erdiek gozatu dute Udalak antolatutako udalekuek. Izan ere, 719 ume eta gaztetok hartu dute parte, hau da, adin tarte horren barruan sartzen direnen ia %44k. Eta ondo baino hobeto aprobetxatu dituzte orduak...



## Vacaciones solidarias Con África, de la mano

Acaban de vaciar sus mochilas. La realidad africana se refleja en sus pupilas, así como la sonrisa de los benineses. Son Marta Arnáez y su novio Gorka Escalante. Se conocieron en Herriak Elkarlanean, ONG creada por Gorka tras un viaje a Eritrea que le dejó "tocado". Este verano han recalado en Nati-



Biak batera lur afrikarrak zapaltzen dituzten bigarren aldia da, duela bi urte Angolan izan baitziren. Ordurako Eritrean izana zen Gorka, 2000. urtean. "Handik -dio- oso gaizki etorri nintzen. Gerran zeuden. Ez zuten ezer. Ura aurkitzeko 8-10 km egiten zituzten, umeak eskolara joateko, berriz, 15 bat km. zeuzkaten eta eskolak goizeko lauretan hasten ziren gero beroegi egiten zuelako... Gogoratzen naiz nola behin eskolara eto-

"Hemen zaudenean -dio Martak- ez zara konturatzeko baina hara joan eta nola eskertzen dizuten ikusitakoan...".

Bi proiektu gauzatuko dituzte. Iazko urtean fruta ez alferrik galtzeko tresneria lortzeko dirua lortu zuten. "Fruta guztia aldi berean heltzen da eta galdu egiten da. Marmeladak edo zukuak egiteko makina bat eraman da eta berehala jarriko dute martxan". Bestek beste, Beasaingo Udalak 30.000 eurotik



Natitingou (Benin)

tingou (Benin), capital de Atacora, departamento que hace frontera con Togo y Burkina Faso. Objetivo: construir una escuela para más de 80 niños. Han recabado la financiación para iniciar la primera fase del proyecto. África les necesita y para ellos pisar el continente negro es "una vitamina".

rri ziren soldaduak umeen bila. Herrixketan ez zen gizonekorik ikusten. Aiton-amonak, emakumeak eta haurrak bakarrik".

Lanean gogotsu jarraitzeko Afrika bisitatzea ezinbestekoa zaiela diote. Duela bi urte Angolan jada zenbait behar aseta zuelatik ikusita, Benin aukeratu dute aurten jomuga gisa. Harrituta geratu dira hango jendearen harrearekin.

gora bideratu zituen proiektu hartara eta aurten beste 22.500 euro ipini ditu. Izan ere, beste erronka bat dute esku artean. Pehuneko herrian, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskola bat irekitzeko dute helburu. 80tik gora ikasle hartuko lituzke zer-troak eta lanak hiru fasetan burutuko dira.

Behin etxean, eguneroko bizitzara bueltatzean, tristura ere sentitzen dute. Begirada aldatu zaie. Hala ere, onartzen dute egunak aurrera doazen heinean errutinarekin batera, kontsumoaren pean erortzen direla. "Nire duxak lehen ordu erdikoak izaten ziren, orain justukoak. Baina askotan pentsatzen duzu "eta zer aldatzen da nik hau erosteagatik?". Beninen ez dute telebista ikusten segundu erdi bat ere pasatzen. "Han ez daukazu ezer baina ez duzu ezer faltan botatzen". Argi dago badugula zer ikasi haiengandik.



Informazio gehiagorako:  
HERRIAK ELKARLANEAN

Andremari kalea, 13, atzekaldean, behea.  
Beasain, 943 08 57 43 (arratsalde)

Diruz laguntzeko:  
2101 0030 92 0011012762 KUTXA

## Venezuelara hango ur eremuak babesten laguntzera



Haizea Zurutzak bi hilabete igaro ditu Venezuelan. Aragua estatuko hiriburuan, Maracay hirian egon da bizitzen. Elan GKEaren bitartez joan da. Besteak beste, hango Ingurumen ministroak ur eremuak babesteko birlandaketen inguruan duen proiektu batean hartu du parte. Oso gustura ibili omen da.



Kakaoa lehortu eta biltegia eraman aurretik jasotzen, Chuao ko plazan.

Jende asko eta ohitura eta pentsakera ezberdinak ezagutzeko parada izan du Haizeak uda honetan. Burutazio horrekin joan zen. Gauzak ezagutzearekin batera, ahal zuen heinean laguntzeko prest hartu zuen

hegazkina. Araguako Ingurumen Ministerioaren birlandaketa proiektu batean hartu du parte. "Misión Árbol", hain zuzen. "Ur eremuak babestea zen helburua. Hitzaldiak eman zazkie uraren inguruan kontzientziatzeko. Zazpi bat laguneko taldea elkartu eta mintegiak sortzean oinarritzen zen proiektua, haziak jaso eta landareak handitukoan mendietara eramateko. "Bestela, etxeak egiteko edo animalientzat erabiltzen dituzte zenbait eremu eta babestu egin nahi dira, basoak sortzeko eta ur arazoak saihesteko". Haizeak Natur Baliabide eta Paisaiaren Kudeaketa eta Antolamendu ikasketak burutu ditu eta beraz, primeran etorri zaio Venezuelako esperientzia. Baina horretaz gain, ibili da Chuao bailara, "munduko kaikorik hoberena egiten duten tokia", nola babesten duten ikusten ere. Ez du alferrik galtzeko betarik izan.

[ Beasain ]  
egunez egun

# ¿Perder? .... ni a las canicas

## ¡En baloncesto tenemos equipo senior!

## ¡En fútbol, van a por todas!

Lau urte eta gero, BKL klubari ez zaio saskibaloian senior taldea osatu beste erremediorik geratu. Neskak ez zeuden etsitzeko prest eta kantxan dena ematekotan ari dira lanean. Gogorak dira jokalekuan. Baloiarekin jolas gutxi. Irabaztera ateratzen dira. Jokatzeko orduan konplizeak dira, lagunak, oso lagunak, aldageletan.

Badirudi pilotak lotura estuak sortzen dituela. Horren beste adibide bat, kadete mailako nesken futbol taldearena da. Iaz bigarren geratu ziren Ohorezko Ligan eta aurten ez dira gutxiagorekin konformatuko. Bejon deizuela!



Equipo femenino de baloncesto.



Equipo femenino de fútbol.

Duras. Así las define su entrenador, Pedro Marín. Son viejos conocidos. A la mayoría les ha entrenado cuando han pasado por equipos cadetes o juveniles. Sin embargo, reconocen que "ha costado" formar el equipo senior de baloncesto. El Beasaingo Kirol Elkarteak tiene el mismo objetivo pero de momento habrá que esperar. "Creo que el año que viene será nuestro año. Me da que podremos formar el senior. Si salen 9 o 10 jugadoras del equipo actual, podremos hacerlo", dice la entrenadora Miren Arrese. Llevan ya cinco años con cadetes. Sería el primero de esa categoría pero los responsables se muestran optimistas "porque tenemos muy buen bloque". El año pasado tres de ellas fueron elegidas para jugar en un torneo organizado por la Real Sociedad. Pero los 18 es una edad crítica. Y es que muchas salen a estudiar fuera,

**"Hau ez da hobbya, dio entrena-tzaileak. Niri ez zait inoiz galtzea gustatu izan. Irabazi beharra dago. Hamar jokalaria baldin badi-tugu, hamarrak jokatzen dute. Ez gara zazpi jartzeko bezain lehiakorrak. Baina ez dugu zaleta-sun gisa soilik hartzen. Irabazi egin behar zaie. Batik bat, hiri-burukoei!"**

Pedro Marín.BKL

otras optan por trabajar... acaba una fase de sus vidas y no resulta fácil acudir todas las semanas a los entrenamientos, haga sol, llueva o nieve. Pero los quebraderos de cabeza pertenecen al mundo exterior. Una vez de cambiar los tacones por zapatillas, la visión del balón es lo único que ocupa sus mentes. Eso sí, los vestuarios dan para mucho y se convierten en confesionarios. Esas charletas antes y des-

pués de sudar la camiseta enganchan. "Venimos porque nos lo pasamos bien. Si no, no vendríamos. Además durante la hora y media que estás entrenando desconectas totalmente. No hay nada más que tú", dice Haizea Tapia. "Al final—cuenta el entrenador— hacen piña y acaban formando cuadrilla". La filosofía de las futbolistas es clara: "Pasárnoslo bien". Sin olvidarse de meter goles y de ganar, claro está. Su rutina deportiva ha comenzado. Dos entrenamientos a la semana y partido

**"Gure filosofia ondo pasatzea da. Izan ere, ordu askotxo ematen ditugu elkarrekin. Astean bi entrenamendu eta asteburuan partidua".**

Miren Arrese. BKE

el fin de semana. Muchas horas juntas. ¡Como para no llevarse bien!

Y ya que el deporte también exige sacrificarse, todas quieren estar "a tope". En opinión de Ohiane Garmendia de BKL, darán todo lo que pueden. Han sido ellas quienes han formado el equipo sin dar su brazo a torcer. Llevaban años pidiendo "senior, senior..." y lo han conseguido. Y es que les va el balón. Nada de Pilates ni otras nuevas modalidades. "Nosotras seremos más agresivas", dicen. En cualquier caso, todavía no han jugado el primer partido de la temporada. Empezarán este mes. Según Marín, tardarán todavía un poco en coger el ritmo. "Es complicado coger el ritmo de competición. Hemos tenido buenos equipos, algunas técnicamente son buenas, se

**"Uste dut datorren urtean seniorren taldea osatzeko moduan izango garela. Oso jokalaria onak ditugu eta bederatzihamar lagun ateratzen badira, lortuko dugu".**

Miren Arrese. BKE

saben colocar y son luchadoras pero el ritmo es distinto. Nos falta unos meses de trabajo". Lo que está claro es que no les gusta perder ni a las canicas. "Metan bastante leña. Yo siempre he tenido equipos pequeños y los de Donostia, por ejemplo, eran más grandes y más fuertes. La única forma de ganar era luchando y siendo duros".

Se acabó concebir el deporte como hobby. "Aquí—dice el entrenador— no hay

hobbies. A mí como entrenador nunca me ha gustado perder a nada. Hay que ganar como sea. Si tenemos a 10 jugadoras ponemos a 10. No somos tan competitivos como para decir "ponemos 7". Pero tampoco nos lo tomamos como hobby. Sobre todo, a las de la "capi" ¡hay que ganarles como sea!".

Estaremos atentos a lo que pasa sobre el césped. La temporada es larga, "pero la esperanza es lo último que se pierde". Pues, ¡mucho suerte! ■

**"Egurra ematen dute kantxan. Nik beti talde txikiekien egin izan dut lan eta Donostiakoak, esaterako, handiagoak izaten ziren eta indartsuagoak. Irabazteko modu bakarra zen borrokatzea eta gogor jokatzea"**

Pedro Marín.BKL

